

OINEKIN HITZ EGITEN

1.- Deskribapena

Elkarren oinak ukituz komunikatzean datza.

2.- Helburuak

- Modu ezohiko eta jostagarri batean jokalarien arteko ukitze fisikoa eta komunikazioa bultzatzea.

3.- Partaideak

4-5 urtetik aurrerako talde bat.

4.- Abiapuntuko arauak

Jolasa begiak itxita eta isilik egingo da.

5.- Garapena

Jokalariak binaka etzango dira lurrean, bata bestearen aurrean eta elkarren oin biluziak ukituz. Denbora jakin batez, oinen bidez komunikatzen edo hartu-eman bat izaten saiatuko dira.

6.- Ebaluazioa

Hurrek jolasak eragindako emozioak, sentimenduak eta aurkikuntzak adieraziko dituzte, lehenbizi binaka eta gero taldean.

7.- Iturria

Afecto y coeducación en Educación Primaria./[koordinatzailea. Azaguirre Arxaorbea, Felisa; egilea: Eguren Zenarruzabeitia, Edurne]. Vitoria- Gazteiz. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. 2003.